

## EUSKARA ▶

**Nafarroaren Egunera joateko autobusa**

Igandean Baigorriara joateko tiketak jarri ditu salgai Hitzaro euskara elkarteak

M. DEL OLMO

Igande honetan Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorriin (Nafarroa Beherea), eta Hitzaro euskara elkarteak autobusa antolatu du. Goizeko 08:00etan Arboledan elkartu eta abiatuko dira. Arratsaldeko 18:00etan, berriz, itzultzeko bidea egingo dute. Hitzarok goierriar guztiak animatu nahi ditu Baigorriko hitzordura, baina bereziki bazkideei eta mintzalagun taldeetan ari direnei egin nahi die gonbidapena. Izan ere, «egun oso ona pasa, euskaraz mintzatu, eta mugaz bestaldeko nafarren hizkera aditu eta gozatuko dugu, nola ez!». Autobuseko txartelak 10 eurotan eskura daitezke Kale Nagusiko Mujika liburudendan edota Hitzarora deituta (943 16 23 66).

Baigorriko Basaizea kultur elkarteak 27. urtez antolatuko du aurten Nafarroaren Eguna. Nafarroa bien arteko anaikidetasuna azpimarratzen duen jai koloretsua egingo dute igandean.

## GIZARTEA ▶

MAIDER DEL OLMO

Otsailaren 7an zabaldu zuten Ordizian atzerritarrei erregularizazio prozesua errazteko orientazio bulegoa. Zerbitzua martxan jarri zutenetik hainbat lagunek jo dute bertara. Etorकिनak dira gehienak, baina baita haien kontratatzaileak ere. Maiatzaren 7ra arte egongo da zabalik bulegoa. Oihana Mariezkorrena ordiziarra da bulegoko arduraduna.

Mariezkorrenak azaldu duenez, «lehenik eta behin informazio kanpaina hasi genuen. Alde batetik, erregularizazio prozesuari buruz, eta bestetik Ordiziako Udalean abian jartzera zihoan informazio bulegoari buruz. Herritarrengana lehen hurbilketarako, elkarriketarako izan genituen hainbat komunikabiderekin. Ondoren, Ordizian bizi ziren atzerritarrik identifikatu, kuantifikatu eta eskutitz batean informazio bulegoaren berri eman genien. Eskutitzak egoera irregularrean egon zitezkeenei bidali genizkien», azaldu du.

Informazio zerbitzua bi taldeetara dago zuzenduta bereziki: lan egoera irregularrean dauden atzerritarrei eta langile atzerritarren lan egoera erregularatu nahi duten kontratatzaileei.

Besteak beste, prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten atzerritarrei jarraipena egin diete. Beren egoera zein den eta orain arte egin dituzten tramiteei buruzko informazioa jasoz. Oihana Mariezkorrenak azaldu duenez, «hasieran ez genekien zein izango zen infor-

**Etorkinentzako orientazio bulegoa dago Ordizian**

Erregularizazio prozesuak erraztuko dituzte maiatzaren 6ra bitartean



Joxemi Santamaria eta Oihana Mariezkorrena. MAIDER DEL OLMO

mazio kanpaina honen erantzuna, jendeak nola erantzun zuten, baina orain pozik gaude. Behar bat bazegoela ikusi dugu-eta».

Mariezkorrenaren esanetan, «kontuan hartu beharra dago, prozesua otsailaren 7an jarri zela martxan, bulego honen irekiera baino ia hilabete lehenago. Hortaz, otsailaren 7an Ordiziako etorkinen errealitatea ezberdina izango zen ziurrenik, martxoaz geroztik bizi denarekin alderatuta. Izan ere, etorkinak euren kabuz mugitu dira informazioa eskatu eta eskaerak prestatzeko». Joxemi Santamaria Ongizate zinegotziak gehitu duenez, etxez etxe banatu dituzten eskutitzek ere lagundu dute etorkinek ekimenaren berri izan zezaten.

**Etoko lanetan dabilzanak**

Zerbitzua martxan jarri zutenetik bulegora jo dutenak, batez ere, etxeko lanak egiten dituztenak dira: «Orokorrean etorkinak beren kabuz, kontratatzailek gabe, etorri dira».

Bestalde, apirilaren 14an Espainiako gobernua eroldari buruzko baldintza aldatu zuen. Hala, 2004ko abuztuaren 8a baino lehen Espainiako estatuaren zeuden atzerritarrek, nahiz eta erroldaturik ez egon, hemendik aurrera badute aukera beste dokumentu ofizial batzuren egonaldia frogatzeko. Horrela, Ordiziako Udaleko Ongizate Sailak egoera horretan egon zitezkeen atzerritarrik identifikatu zituen eta harremanetan jarri ziren, horren berri emateko.

## KULTURA ▶

**Antzerki Garaia ekimenaren baitan, gaur, Zanguango taldearen 'Perez y Galvaez' obra eskainiko dute**

Antzerki talde horrek Max Saria jaso zuen 2002. urtean; emanaldia 22:15ean hasiko da

M. DEL OLMO

2002. urtean antzerki arloko Max Saria jaso zuen Zanguango taldeak *Perez y Galvaez* lana eskainiko du, gaur, Ordiziako Herri Antzokian. Gaueko 22:15ean hasiko da emanaldia. Antzerki obra bi pertsonairen ingurukoa da: bi protagonistei bizitzan gauzak ez doazkie euren nahi bezain ondo, baina ez dute ezer egiten gauzak aldatzeko. Umorezko lana da, eta gizarteko gai ugari lantzen ditu.

Antzerki Garaia ekimena Beasaino eta Ordiziako udalek

antolatzen dute elkarlanean, Foru Aldundiarekin eta Euskadi Sarearekin batera.

Antzerki Garaiko sustatzaileen arabera, gaur Herri Antzokian ikusi ahaliko den lanean «gizarte konpromisoa» ere ageriko da. Bi aktoreak Txubio Fernandez eta Patxi Perez dira. Antzerkia egiteko «estilo berezia» dute. Gaurkotasunezko gaiak lantzen dituzte, kaleko jendearen bizimodua eta gorabeherak taula gainera eramanez, umorez betiere. Gaurko saioan algararik ez dela faltako esan dute antolatzaileek.



'Perez y Galvaez' antzerki laneko bi aktoreak. HITZA

## GIZARTEA ▶

**'Oiangu parkea SOS' hitzaldia, gaur, Bustuntzan**

M. DEL OLMO

Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformak herriko arlo ezberdinetako eragileekin bilteko asmoa agertu du, egitasmoaren inguruan euren iritzia jaso eta informazioa zabaltzeko. Hala, gaur hitzaldia emango dute Bustuntza auzoko eskolako liburutegian, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

Oiangu Bizirik plataformak herritar guztiak gonbidatu ditu antolatuko diren ekimenean parte hartzea eta euren ekarpena egitera.